

ttüpi-ttapa


1996ko urtarrilak 11 • 173. zenbakia

Elkarizketa

Martin LEGARRA


Elkarriko arduraduna

Bortzirietan



TELELANGINTZA

ETXETIK LANEAN



Polo Berria

Desberdina da,
bere kalidade, fidagarritasun,
kapazidade, segurtasun eta prezioarengatik.

1.295.000 Pta.

Polo Berria. Volkswagen-eko tikiak xume izatearen haunditasuna erakusten du. Kanpotik eta barrendik, dotorea eta dinamikoa, egiazko Volkswagenak bezalaxe. Polo Berria maniobratzeko goxoa da, segurua eta barrendik lekutsua. Volkswagen bati dagokion fidagarritasuna, ekonomia, iraunkortasuna eta kalidade haundiko teknika frogatu ahal izanen duzu berekin.

BEZa, garraioa, matrikulatze zerga eta promozioa prezioan sartuak. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera bitarte.



Polo Berria

Volkswagenen kontzentratua

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759

D O N E Z T E B E

ttipi-ttapa

**Ameriketara
bidaltzea
erdi**

**prezioan
gure
bitartez**



Interesatua egon ezkerro, deitu

Iparraldetik deitzeko 19-34-48

Hegoaldetik deitzeko 948-

631188ra

DATUAK.....

❖ *Martin Legarra, Arantza eta Igantziko apeza da.*

❖ *Bortzirietan, Elkarri Bakearen Aldeko Giza mugimenduaren arduraduna da.*

❖ *'Euskal Herria, akordioa 94' sinadura kanpainaren ondoren 251.323 sinadura aurkeztu zituzten notariaren aitzinean.*

❖ *Momentu honetan, 'Bakearen aldeko borondateen kontratua' kanpainan buru-belarri sartuak daude. 3.000 atxikimendu jaso dituzte, horietatik 23 Bortzirietan izenpetuak.*

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
ARTXIBOA

Martin LEGARRA:

«Elkarrizketarako duen gogoia edukiz bete behar du gizarteak»

ZER DA 'BAKERAKO BORONDATEEN KONTRATUA'?

Elkarrik azken hiru urte hauetan egindako kanpaina eta ekitaldi ezberdinetan gauza bat geratu da garbi: gure gizarteak konbentzitu dago gatazka hau gainditzeko elkarrizketa dela biderik egokiena eta demokratikoa. Baina une honetan hori hutsa defenditzea ez da aski; uste dugu gizarteak duen elkarrizketarako gogoia edukiz betetzen hasi behar dela, pausu konkretuak ematen hasteko garaia dela. Helburu hori lortzen lagundu nahi du 'Bakerako borondateen kontratua' kanpainak.

ZEIN FUNTZIO BETETZEN DU?

Kanpaina honekin elkarrizketa eta akordioaren bitartez bakebidean aitzinera egiteko gizartearen dagoen oinarriko borondatea bideratzea lortu nahi du Elkarrik. Proposamen honek ez du azken akordio bihurtzeko asmorik. Bertzeak bertze borondate hauek ukitzen ditu: bortxakeria guztiak bukaraztea; gatazka gainditzeko elkarrizketa bultzatzea; edozein helburu politiko demokratikiko de-



fendatzeko bide juridikoak irekitzea; Nafarroa, EAE eta Iparraldearen artean adostasun haundiagoko bideak irekitzea; giza eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan sakontzea; Euskal Herriaren geroa erabakitzeko gehiengoaren nahia onartzea...

AZKEN ALDIAN EGOKIA TENTSIONATU DA. NOLAKO ANALISIA EGITEN AHAL DA MOMENTUKO EGOERAZ ETA ETORKIZUN LABURREAN GERTA DAITEKEENAZ?

Bi jarrera har ditzakegu: egunero agertzen zaizkigun indarkeria mota batzuk edo guztiak salatu eta egoera oso gogorra eta zaila dela errepikatu. Bertze jarrera egungo egoera horretan elkarrizketa proposamena sendotzeko zer nolako aukerak ditugun aztertzea

izanen litzateke. Elkarrik bigarren jarreraren alde egin du bere apustua: une zailak direla eta, ez dugu gure lana eten behar. Goibelaldi honetan ere baikor egoteko arrazoiak ikusten ditugu: alderdi politiko, gizarte mugimendu, sindikatu eta gizarteak berak elkarrizketarekiko duten aldeko jarrera, nazioarteko presioa... Euskal gizarteak gatazka gainditzeko ahalik ez duela ez dugu pentsatu nahi.

► *"Bakerako Borondateen Kontratua zerbaiten nabaritzen diren pertsonen aurkeztu zaien lehenik eta gero alderdi politikoei: PNV, EA, IU-EB, PSN (Ez definitiboki) eta CDNk sinatu dute"*

TELELANGINTZA

PRESTAKUNTZA

IKASTAROA

HERRIOTAKO

EMAKUMEENTZAT

Cederna Garalur garapen agentziak telelangintza eta teknologia telematikoetan prestakuntza ikastaroak jarri nahi ditu martxan proba modura. Bi urte iraunen dute Prestakuntza ikastaro hauek eta 30 emakumek parte hartu ahal izanen dute. Prestakuntzaren azken fasean, emakume hauek ikasitako guziaz beraien lanpostua sortzen aplikatuko dute, beti ere, teknologia berrien alorrean.

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN

emakumeak lan mundurako pres-tatzea da RE-MOTE izeneko plan honen azken helburua. Jada lanean ari diren profesionalen gain, beren enplegua sortu nahirik dabil-tzan emakumeek ere parte hartu ahal dute Prestakuntza Ikastaro hauetan.

BI IKASTARO

Hilabete honetan hasi eta hel-du den urteko abendua bitar-te, hameka hilabeteko bi ikas-taro antolatu ditu proba gisa Cederna Garalur elkarteak. Ikastaro bakoitzean 15 emakume arituko dira, guziaz Nafarroako Iparraldean, '5b Helburuko Eskualdea' deitzen den honetan bizi direnak. Printzipioz, erdi eta goi mailako ikasketak dituzten emakumeentzat pentsatua da-go, informatika eta ingelese-ra zerbait dakitenentzat. Dena den, baldintza hauek ez dira

ZER DA TELELANGINTZA?

DEFINIZIOAK ETA BITARTEKOAK

TELELANGINTZA: Langilea eta lan emailaren artean modu interaktibo batez egindako lana da. Horretarako, bi ordenagailuak, langilearena eta lan emailarena, elkar-lotutak behar dute egon modem edo transpac-en bitartez.

URRUNDIK EGINDAKO LANA: Telex edo faxaren bitartez egiten den komu-nikazio eta infor-mazio transferentzia.


Hauexek dira bi sistema erabilienak. Bata zein bertzean, langilea eta lan emaila ez daude toki berean, ez dago bien artean lantoki amankomunik eta tele-komunikazioa dago oinarrian.

ANTOLAKETA MODU

ETXETIK EGINDAKO LANA: Lan em-ordenagailuan egin, eta gero, **LANTOKI SATELITEAK:** Geografik lantokiak dira, telematikaren b **TELELANGINTZA ZENTRUAK:** Jakin zentru bakoitzean. Lan emaila

ZERTAN DA APLIKAG

- Idazkari, kontabilidate eta gestio lanak.
- Marketing eta salmenten kudeaketa.
- Informatika (datu bilketa, programazioa eta analisisa).
- Dosierak (juridikoak, finantz...
- Komunikazioa (itzulpenak, a mentazioa, fitxategien mante...
- Bulego teknikoan lanak (orde gailu bidez egindako diseinu datu-base grafikoen mantent...
- Autoedizioa



derrigor bete beharrekoak. Teknologia mailan ezagupen teorikoak eta praktikoak bereganatzeaz gain, prestakuntza enpresariala ere jasoko dute. Izan ere, ikastaroaren azken partea arras praktikoa izatea nahi bait dute antolatzailerik. Eta horretarako, partehartzaile bakoitzari bere proiektu enpresariala egiten lagunduko zaio. Klase teorikoak hartzeko 400 ordu izanen dituzte eta klase praktikoetako ordu kopurua ikastaroak izanen duen martxaren arabera zehaztuko da.

IZEN EMATEAK

Interesaturik daudenak lehenbaitlehen mugitu behar dute izena emateko, urtarrilaren 18a baita horretarako azken eguna. Cederna Garalur elkarteke edozein bulegotara deitzea nahikoa da, edo bertzela, Iruñeko 210018 telefonora.

INFORMAZIO BILERAK

Halere, xehetasun gehiagoren berri izan nahi duenak,

hobe izanen du informazio bileretara agertzea.

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekakoek Doneztebeko Juantsenean dute zita ortziral honetan, urtarrilak 12, arratsaldeko 6etan. ■

IKASTAROAREN DATU INTERESGARRIAK

Norentzat:	Emakumeentzat (5b Helburu Eskualdekoentzat)
Izena emateko azken eguna:	urtarrilaren 18a
Non:	Cederna-Garalur: Iruñea (210018)
	Baztan (580561), Bortziriak-Malerreka (451654), Leitzaldea (610676 - 604619)
Informazio bilera:	Donezteben (Juantsenean) urtarrilaren 12an, 6etan

Kontaidazu nola egiten duzun lan eta nor zaren erranen dizut

Soziologiaren guraso deitua izan den E. Durkheimek, «Lanaren banaketa soziala» izeneko liburuan (1893) finkatu zuenez, lan egiteko moduetan historikoki ematen diren aldaketek gizartea beraren eboluzioarekin zerikusi zuzena dute. Gizarte teknologikoak, gero eta uniformeagoa den nazioarteko merkaturari da osatzen, produkzio sistemen antolaketan erabateko arrazionalizazioa ezarritik. Taylor azken muturrera eramatea amesten zuen lan banaketa eta espezializazioa, Fordismoak gauzatu zuena, gaur egun gaunditua gertatu da mundu mailan osatu zen kate-telematikoko berriarekin.

Historiagile batzuk Historiaren izaera ziklikoa azpimarratu ohi dute, eta kasu honetan, baieztatu dela erran daiteke. Iraultza industrialak produktoreak etxetik ateri eta lan-tegietara eraman zituen. Orain, iraultza teknologikoak berriro etxera bueltatuko ditu, kasu honetan informatikaren bitartez munduari loturik.

Azken datuen arabera, European milioi bat telelangile daude egun, eta XXI. mende hasieran bikoiztu egingen dira lantegitiki kanpoko enpleguak. Fenomeno honek betiko langileriaren murriztapen nabarmena ekarriko du. Kalkulu ekonomikoaren arabera, errekonbertitutako langile bakoitzarengatik 19.000 dolar aurreztuko ditu enpresariak.

Fco. Ortiz Chaparro, Telelangintzak maila indibidual eta kolektiboan dakarren aban-



CARLOS VILCHES
Soziologoa eta irakaslea

tail hipotetiko hauek aipatzen dizkigu:

ALDE ONAK

Langilearentzat

Lana «in situ»
Malgutasuna
Autoenplegua
Familia atentzioa
Soldata ugariak (batzutan)
Lan arazo gutiago

Enpresarentzat

Langileentzat bulego beharrik ez
Lanera hutsegite gutiago
Produktibidade gehiago
Kontrol gehiago
Soldata eta zama gutiago
Profesional onak eskuragarri

Globalki

Populazioaren banaketa hobea
Azpiegitura eta energia aurrezkia
Etorkizuneko teknologiak indartu

ALDE TXARRAK

Bainan errealitatearen ikuspegi dialektiko batek, txanponaren beste aldea ere begira-

tzera behartzen gaitu langileari dakarkion eragozpena ikusteko. Problemarik nagusia etxeko lau paretetan isolatzeak ekartzen du. Nekea haundiagoa da eta hautsi egiten dira betiko lan moldeak dituen harreman eta lotura afektiboak. Telelangintzako langile aitzindarien artean segurtasun falta haunditzen ari da eta laguntza sindikal eta korporatiboa izateko posibilitateak urritzen.


Lantokia, bizilekua eta atsedan lekua etxeko lau paretetan barnean edukitzeak bizitzaren erdigune bihurtzen du etxea, estresa eta huts sozialaren sentsazioa areagotuz.

Eta hementxe irekitzen da azken eztabaida. Emakumearen askatasun tresna gisa saltzen ari den Telelangintza, beharbada, etxezuloetan eduki arazteko bide berri bat baino ez dela, eta etxetik kanpoko presentzian gizonezkoekin parekatzea eskatuz feministek hainbertzetan egin ohi duten aldarrikapena baztertu egiten dela. Kritiko batzuk diotenez, Telelangintzak ez du balioko jende kopuru berriak lan munduan sarrerazteko, kontrakoa baizik. Gaur egungo enplegatuak lan gehiago izanen dute, eta lana dutenen eta ez dutenen arteko diferentzia haunditu baino ez da egingen.

Gizarte burutsuago baterako bidean, lasai eta sakon hausnartu behar dugu ezartzen ari duguten bizi estilo berri hau. Teknologiak eta teknologiarik ez garrantzatzen pentsatu beharko genuke. Baliteke sukaldetako mahaitik lan egitea ez izatea hain atsegina.

INAK

enagailutik fitxategia hartu, lana etxeko lan emailaren ordenagailura. Estetik urrun dauden enpresa beraren nagusiarri lotuak daudenak. berdinetakotelelangileak biltzen dira dioten zerbitzua osoagoa da.



E GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.200 ALE

TARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

ERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TfNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

ndaria: Joxemanuel Iri-

. Publizitatea: Miren Kar-

Tolosa. Erredakzioa: Aitor

ena, Joxemanuel Irigoien.

inistrazioa: Amaia Goia.

akzio taldea: Pello Ape-

a, Juainas Paul, Kristina

n, Bittori Telletxea.

emaileak: Joseba Azpiroz,

an Arozena, Juana Mari

r, Ainhoa Mutuberria, Iban

Txema Aldabe, Pello Etxe-

xema Urroz, Patxi Otxan-

a, Ixabel Maia, Josune Etxe-

, Pablo Mendiburu, Joseba

oide, Alizia Olaizola, Margari

hike, Koro Irazoki, Mixel

ndiain, Jacqueline, Elixabet

a, Garbiñe Maiz, Oskar

arena, Alberto Sansiñena,

Apezetxea, Aitor Arozena,

na Boan.

oratzailak: EHNE Nafa-

Patxi Lasa, Mikel Bezunar-

Joxe Javier Etxeberria,

xa Zabala...

ategia: Gertu (Oñati).

tapak ez du bere gain har-

errigorrez, aldizkarian adie-

ko erranen eta eritzien eran-

unik.

nde Laguntzaileak: Bera,

, Goizueta, Areso, Baztan,

zubi, Zugarramurdi eta

ko udalak, Bortzirietako

ara Mankomunitatea,

rekako Zerbitzu Mankomu-

a, Zugarramurdiko Akelarre

ea...



litzkari honek Nafarroako
ernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Suteen kontrako kanpaina hasi da

Suhiltzaile Boluntariook ongi funtzionatzen dugu



Manuel IRIARTE
Alkate eta suhiltzailea

Abenduaren 13 eta 14ean izan ziren Iruñean Nafarroako Suhiltzaile Boluntarioen I. Ihardunaldiak, Nafarroako Gobernuak antolatutako. Kataluniako Suhiltzaile Boluntarioen ardura-dunek parte hartu zuten Nafarroakoekin batera. Berako Suhiltzaileok, dena dela, martxoaren 11n ere egon ginen bertze Ihardunaldi batzutan Donostian.

Nafarroan sortu berriak gara oraindik. Katalunian, adibidez, mila aldiz aitzinago daude antolamenduaren aldetik eta baita asoziazio bezala ere. Iparraldekoak ere aurreratua go dira eta hobeki antolatuta daude Suhiltzaile Profesional eta Boluntarioen artean duten koordinazioari begira, batez ere, Parke Mixtoen bitartez.

Hemen, momentuz funtzionamendu ona dugu eta profesional eta boluntarioen arteko koordinazioa eta funtzionamendua ez dago sobera organizatua. Nafarroako Gobernuaren aldetik ere, inoiz baino laguntza gehiago ari digute ematen orain.

Mugairiko Parkean lehen bederatzi ginen eta orain hamasei



Paulino GARCIA
Suhiltzaile Profesionala

Izenak dioen bezala, Suhiltzaile Profesionalak, profesionala izan behar du lehen lehenik. Bere lana ongi betetzeko ez dago hor balio duen aitzakirik.

Mugairiko Parkeari dagokionez, zera erran dezaket: pertsonal aldetik, lehen 9 ginen eta orain 16 gaude. Ez gabilta arras arras ongi, bainan tira... erregular bederen bai. Material aldetik ere ezin erran gaizki gaudenik, eta orain, sute-kanpainen gaudela, bertze 'todoterreno' bat bildaltzen digute.

Suhiltzaile Boluntarioei dagokionez, badirudi Nafarroako Gobernutik laguntza gehiago emateko asmotan daudela. Beti ere, ikusi beharko da erraten duten guzia zertan gauzatzen den azkenean, bainan tira, badirudi animatuak daudela. Hauxe da Suhiltzaile Boluntarioentzat 'tajada' ateratzeko tenorea, batez ere material aldetik.

Dena den, guri inpresio ona eman digute beti Bera eta Lesakako boluntarioek. Talde majua dute eta ageri da gogoia eta ideiak dituztela.

Prebentzioa, sutearen lehen momentua eta koordinazioa



Manu ARRASTIA
Foresna-Zurgaila

Mendiko suteei dagokionez, Foresna-Zurgailan lau gai garrantzitsu ikusten ditugu. Lehenik, prebentzioa azpimarratu beharra dago. Ez mendien garbitasuna bakarrik, baita inplikaturik dauden agenteen prestakuntza, mendiko bideen katalogazioa, arrisku lekutan ur-putzuak jartzea... eta bertze mila gauza ere.

Bigarren aspektu garrantzitsua, sutearen hasierako momentua da. Funtsezkoa ikusten dugu kontrolatu nahi dugun eremu geografiko horretan suhiltzaile espezializatuak edukitzea; Suhiltzaile Boluntarioak, alegia. Sutearen kontra jokatzeko lehenak izanen diren hauek ongi ekipatuak egon behar dute, sutea hasieratik kontrolatzeko. Hirugarrenik, tamaina handia hartu duten sutean itzalketa dago. Funtzio hau Suhiltzaile Profesionalei dagokie.

Azkenik, koordinazioa eta arlo honetan dauden datuak gaurkotzea nahitaezkoa da, gai hauetan aitzinduagoak daudenetik ikasiz.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Eguneroko, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



**Urte berri, berri
zer dakartzu
berri?**

Maribeltxa UNANUA
Neurria: Zortziko haundia

*Bat joan zaigu eta bertzeari
ongiitorria eman ez
hasia dugu urte berria
betiko ohitura denez
gauza nabari bat gertatzen da
hemen bizi garen legez
denbora azkar doa aurrera
gu osterantzean nekez.*

*Batzutan pozik egongo gara
bertzeetan aldiz ilun
hori ukatu egingo duenik
nere ustez ez da inun
momentu hontan bertze kezka bat
daukat nik bueltaka burun
urte berria jakin nahi nuke
zer berri dakarkiguzun.*

IRAKURLEAK MINTZO

**40.185 Kg. paper
7 hilabetez**

Gaur egungo gizartean erreziklaia duen eraginaz kezkatuta, Lesakako Ikastolako gurasa talde batek paper bilketak antolatu ditu herrian hamabortzaldiro. Talde honek bi helburu nagusi izan ditu bere lana betetzerakoan.

Lehenengoa eta garrantzitsua, kontzientziazio kanpaina izatea izan da. Gaur egungo gizartean eguneroko-eguneroko sortzen ditugun hondakinen artean, aunitz dira erreziklaia bidez berriro gizartera itzuli daitezkeenak lehengaiak berriro erabili gabe. Hauetako bat paperaren kasua da. Egunkari, aldizkari, kartoi eta enbalajeen produkzioan lehengai bezala egurra erabili ordez paper pasta erabili ezkeroko egurra, eta aldi berean zuhaitzak aurrezten ditugu. Bigarren helburua ekonomikoa izan da. Papera bildu eta sailkatu ondoren lantegi espezializatuera salduz pezeta batzuk ateratzea.

Talde hau maiatzan hasi zen lanean eta lehenengo bilketa maiatzaren 20rako antolatu zen. Geroztik larunbatetan (hamabortzaldiro), herriko atarrietan lesakarrek utzitako paper sor-

tak bildu dituzte. Denbora horretan (zazpi hilabete inguru) 40 tonelada (40.185 kilo) paper bildu dituzte eta gustora daude herriko jendeak eman duen erantzunarekin. Erran baidateke kanpaina honen helburu nagusia, paperaren birziklapena, bete dela.

Urtea amaitzearekin batera hamabortzaldiroko lan hau amaitutzat ematen du gurasa talde honek, erreleboa jaso baitute Bortzrietako Zabor Mankomunitatearen eskutik. Bortzrietan, otsailetik aintzinerara, kontenedore bereziak (urdinak) paratuko dituzte papera biltzeko. Modu honetara lesakarrek ez ezik, Bortzrietako biztanle guztiek aukera ezin hobea izanen dugu gure etxe eta lantegietan sortzen den papera bildu eta aldi berean gai hauekiko dugun sensibilitatea adierazteko, orain artean lesakarrek hain ongi adierazi duten bezala.

LESAKAKO
TANTIRUMAIRU IKASTOLA

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako 25
lerro baino luzeago
idaztea gutun
hauetan. Idatzi
duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea eta
ENAren zenbakia
agertu beharko dira.
Laburtu beharra
izanez gero, **ttipi-
ttapa**k bere esku
izanen du horretarako
eskubidea.*



LESAKA



**HIRI ARTEKO, ESTATU
BARNEKO eta
NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxa: 592179

**GRUPO
ZURICH**



**A SEGURO
OROKORRAK**
Itzea, 4 — BERA
© 63 07 63



Euskaldunon Egunkaria 96+2

«Aita Donostiak Olentzeroren jatorria Lesakan kokatu bazuen, Dios te salvea Berakoa dela esan zuen»

Jon ABRIL
Kazetaria
Egunkaria 96+2

«Erreakzionatu behar da. Problema ez da bakarrik politikoena, euskaldun gizona baizik. Herriaren kolaborazio haundia behar da ETA derrotatzeko, firmotasuna eta giza

eskubideen errespeto zehatza elkartuz»
Andoni ESPARZA LEIBAR
Lesakako Udal Idazkaria
Diario de Noticias 95-XII-26

- ◆ **Zein dantza gustatzen zaizu gehien?**
- ◆ Luzaideko dantzak.
- ◆ **Jota ala Vals-a?**
- ◆ Jota.
- ◆ **Erakusteko, porrusalda edo matematikak?**
- ◆ Porrusalda.
- ◆ **'La letra con sangre entra'?**
- ◆ Ez, 'sin sangre'.
- ◆ **'Bakalao' dantzatzen duzu?**
- ◆ Ez, ez dakit dantzatzen.
- ◆ **Zein herritan dantzatzen duzu gustora?**
- ◆ Edozein tokitan, jendeak dantzari kasu pixka bat egin ez gero.
- ◆ **Zer opari eginen zenioke ume bati?**
- ◆ Liburu majo bat.
- ◆ **Norekin dantzatuko zenuke 'agarrao' bat?**
- ◆ 'Goenkaleko' Txapasekin.
- ◆ **Bizitzeko, gurasoekin edo bakarrik?**
- ◆ Gurasoekin. Momentuz bai behinpin.
- ◆ **Escola oporretatik zain dituzu nahiago?**
- ◆ Udakoak, luzeenak baitira.
- ◆ **Euskal dantzak galtzen ari gara?**
- ◆ Nik uste ezetz, baina gure erara moldatzen ditugu. Berreskuratzen lan haundia egiten ari gara.



Kristina BOAN
Irakaslea
eta dantzaria: Beratarra



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA



☎ 631076 • BERA



GELTOKIAK, S.L.

100 ibilgailu baino gehiago

Aukerako ibilgailuak

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • ☎ 908.779356

Bera

Herriko akordeolariak Arrasaten saritu zituzten

Mikel Urtxegik eta 'Isidoro Fagoaga' musika eskolako neskek hainbat txapel eta domina ekarri zituzten

KRISTINA BOAN

Senideen mozioa onartua

Senideak erakundeak aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen udalak. Bertan, presoen eta bere senitartekoen eskubideak errespetatzeaz gain, Euskal Herriko presondegietara ekartzea eta legez etxean egon behar dutenak kalera-zea eskatzen zen.

Bonberoei laguntza

Su-hiltzaile boluntarioen hornidurarako 4 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuko Barne Sailak.

Urte bukaera eta hasiera trixtea

Heriotzak beti tristetak izaten badira, jende gaztea eramaten duenean oraindik gehiago. Urtexahar egunean, Pedro Arretxea, Berako pilota eskolan irakasle izandakoa hil zen 42 urte zituela. Egun berean, aitzineko legealdian zinegotzi izandako Jose Luis Urtxegi hil zen, 52 urterekin. Urteberri egunak, berriz, bapatean eraman zuen Leire Sorozabal Ansalas urtebeteko neskatoa.



Herriko akordeolariak sarituak

Isidoro Fagoaga musika eskolako Leire Telletxea, Naiara Rio-pedre, Olaia Iriondo, Ainhoa Ruiz, Naiara Aldazabal, Eluska Bergara, Usoa Zelaieta, Laura Iglesias, Mainer Irazoki eta Ana Perugorriak urrezko eta zilarrezko sariak jaso dituzte Arrasateko VIII. akordeoi jaialdian.

Mikel Urtxegik, bertzalde, Gipuzkoako XVI. txapelketa irabazi du junior mailan herri berean. Mikel Lesakako akordeoi orkestran aritzen da Salvador Madariagaren zuzendaritzapean.



Mikel Urtxegi goitiko argazkian eta behituan Arrasateko lehiaketan saritutako akordeolariak

ttipi-flash

Udal zergak ordaintzeko

epea luzatzea erabaki du udalak. Hiri eta nekazal luraren kontribuzioak eta lizentzia fiskala ordaintzeko borondatezko epea urtarilaren 15ean akautuko da. Ondoren, exekutibo bidez kobratuko dira, gerta daitezkeen beste gastuak gehituta.

Berako Uxua Emakume taldeak

martxoan egin ohi duen erakusketarako lanak prestatzeko deialdia luzatu die herriko emakumeei. Laboretaz gain edozein gisako lanak baliagarriak dira.

Mendi aprobetxamenduak

Herri lurretan dauden 3.930 laritz edo alertze probetxeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Guztira 656 m³ egur egingen dute, 2.296.000 pezetan baloratuak.

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

Ireki berria

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

Lesaka

El Salvadorrera bueltatzeko asmoz etorri dira Larralde ahizpak

Amaia eta Garbiñe Ciudad Romerotik itzuli dira eta Mertxe Rekondo, berriz, La Ceiban gelditu da hilabete bukaera arte

AITOR AROZENA

Ia urtea bete da Merxe Rekondo eta Amaia eta Garbiñe Larralde Ertamerika aldera abiatu zirela, El Salvadorrera, hain zuzen. Bi ahizpak Ciudad Romeron egon dira, gazteendako zentru baten eraiketan bertako gazteei laguntzen, haurtzaindegia prestatzen eta jostungintza tailer bat osatzen. Lanok, CPDH Madeleine Lagadec izeneko erakunde ez gubernamentalaren baitan burutu zituzten. Horretarako laguntza eskatu zuten bere garaian eta herrian izandako erantzun ona eskertu dute, guztira 300.000 pezetara bildu baitziren.

Larraldetarrak Egu-berrietako bestak etxean pasatzeko etorri dira, baina otsailean El Salvadorrera bueltatzeko asmoa dute. Horretarako bi proiektu prestatu dituzte; batean Garbiñe marrazkilaria lan egitera joanen



litzateke eta bertzean, Amaiak folklorea berriskuratzen eta zabalzen arituko litzateke. Proiektuak finantziaztea lortuz gero urtebeterako joanen lirateke, bertzela, diruaren arabera. Herriko Etxeko eta Nafarroako Gobernuo Ongizate Saileko atak jo dituzte horretarako.

Bertzalde, Mertxe Rekondok La Ceiba herrian ari da lanean eta urtarrilaren 27rako etxera bueltatuko omen da.



Emakumei eta gazteei laguntzen aritu dira, batez ere, Amaia eta Garbiñe Larralde El Salvadorreko Ciudad Romero herrixkan. Otsailean berriz joateko asmoa dute, "lan aunitz egiteko baitago" Amaiaren erranetan. Laguntza eskariak luzatuak dituzte.

tipi-flash

- ❖ **Su-hiltzaile boluntarioen** ekipamendua hornitzeko 3.400.000 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuo Barne Sailak.
- ❖ **Hirigintza planeamendua berrikusteko** 5.340.000 pezetako dirulaguntza eman dio Herriko Etxeari Nafarroako Gobernuak. 3.738.000 pezeta datorren urtean jasoko ditu eta 1.602.000 1998an.
- ❖ **San Anton Eguna** ospatuko da datorren asteazkenean. Egun horretan eta hurrengo igandean bisitari aunitz espero dira izen bereko auzoan. Garai batean Oiartzun, Irun eta Lesakako baserritarrekazienda tratuak egiten zituzten.


ALBAITARITZA KLINIKA
 ORDUTEGIA
 9,30etatik 1etara eta 5etatik 8etara
 Larunbatetan 9,30etatik 1etara
 Albistur 51, ☎ 627660 LESAKA

LEGARRA
 Legarra, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

• Margoen maletina (86)	2.800 Pta.
• Margoen maletina (68)	2.100 Pta.
• 'Stabito' errotiladorea	145 Pta.
• Palanka Artxidadorea	615 Pta.
• Eskola organizadore titkia	2.175 Pta.
• Eskola organizadore haund.	3.705 Pta.
• Petrus' taladroa	1.165 Pta.
• Petrus' grapadora	2.395 Pta.
• 'Roller' zuzentzaila	465 Pta.
• 'Tipex' zuzentzaila	355 Pta.
• Clip galbanizatuak	60 Pta.
• Clip mikelatuak	80 Pta.

ESKAINTZAK
 Urtarrilaren 31 bitarte
 ballagarrek dira

EROSLE
 LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana

Frexkuena
 zugiandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Etxalar

Urte zaharrak hamabi herritar eraman zitigun

Eta sei haur berri ekarri

PELLO ETA ALBERTO

Baigorriko kantari taldea

...atseginez entzun ahal izan genuen Xabierko San Frantzisko egunean. Berrogeita zortzi gaztek osatutako taldea, ongi trebatu eta egokitua. Iparraldeko gazteriak ez du kantuaeren ohitura galtzen.

Zabaletako mendia birlandatzeko proiektua

Zabaletako mendiko arbolak kenduak direnez, landare berriak sartzeko proiektua egiten ari dira, Foresna-Zurgai elkarte teknikariekin. Lan horrek bere denbora behar duenez, heldu den negurako egonen da pen-



Eskolaurreko haurrek beren olentzeroa egin zuten, baita omenaldia eskaini ere. Hor dituzue 'Olentzero begi gorri' kantatzen

tsatu eta erabakia zer eta zenbat plantatu.

Mendietarako laguntza ttikiagoa

Gobernuko mendietako departamendua lehen baino maila ttikiago eta sosa guttiagorekin gelditu da,

gobernu berria sortuz geroztik. Eta ondorioak sumatzen hasiak dira. Etxalarrek plantaziorako bi proiektu presentatu, Unani eta Mugerdi alde, eta azkeneko hau bakarrik onartu dute. Insignis pinua eta bertako ha-

ritza sartuko dira eta 7 milioiko aurrekontua izanen du.

Sei basurde egun batez

Urtezar bezperan asekada ederra izan zuten basurde ehizturiek, sei bota baitzituzten eta etxeratu.

Personaia



Asier Arburua Intsumisoa

- Juezaren antzinean egon zara, soldaduzkari uko egiteagatik. Nerbioak noiz somatu dituzu gehiagio?

Niretzat eta familiarentzat epaiketa aintzineko egunak izan dira gogorrenak, epaiketa egun bera baino gogorragoak.

- Herritar eta lagunek elkartasuna agertu dizute: afaria antolatu zuten, sinadurak bildu, juiziora lagun egitera joan. Laguntza haundia izan da zuretzat? Bai, egitan baliosoa izan da niretzat elkartasun hori. Eta hemendik nahi nieke eskerrak eman.

- Beldur haundia diozu gartzelara joateari?

Orain ez. Joan beharra gertatu eta eguna hurbiltzen denean, ikusiko dugu.

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

LESAKAn gaituztu zure zerbitzura
Plaza Berria, 10 - ☎ 637335
Garbi - Leku
t i n d a t e g i a
Arropak, larrua, tapizak, etab... garbitzen ditugu

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

KOXKILA
OSTATUA
Zarandia, 4 - **LESAKA**

koxkonta
Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erroserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ARRANO
OSTATUA
☎ 627597 • **LESAKA**

Igantzi

Olentzero eta kontzertua aurtengo Eguberrietako aipagarri

Berrizaunen kablez ikusiko omen da abudo telebista, orain arteko arazoei bukaera emanez

OSKAR TXOPERENA

Aspalditik Berrizaunen telebista ikusteko izan dituzten arazoak akautzeko puntuan daudela ematen du. Azkeneko ukituak ematen ari omen dira sarearen egiten ari diren langileak. Ondorioz, soberan izanen dituzte hemendik aitzinera antenak, eta zenbaitzuk, telebista ikusteko egin beharreko mirariak atzetzeko aukera izanen dute.



Azken urteotan bezala, bertz olentzerok hartu zuten parte Eguberri bezperan herrian barna egindako karrikapasan. Ohizkoa izan ez zena ordua, arratsaldeko 5etan egitea erabaki baitzen, meza ondotik beranduegi gelditzen zelako.

Argazkiak: OSKAR



Izugarri ederra izan zen Eguberrian elizan entzun ahal izan genuen kontzertua. Bertan, Igantziko abesbatza, txistulari eta argazkian agertzen den Unanu taldearen emanaldia izan genuen entzungai. Azken talde hau Nafarroako kantu txapelketan izana dugu gainera.

Ameriketatik bisitan etorriak

Eguberri inguruko egunak aprobetxatuz, hiru igantziar izan ditugu bisitan. Estatu Batuetatik Juan Mendibilkoa (7 urte zituen

etorri gabe) eta Martinxo Iruienbordakoa eta Argentinatik berriz, Miguel Lizardi. Berriri nahi duzuen arte.

Biltoki Ttikiko egoitza itxi da txikizioen ondotik

Parrokiko lokaletan zenbait txikizio izan zirela medio Biltoki Ttikiko egoitza ixtea

erabaki zuen apezak. Gertakizunak abendu hasieran izan ziren, nonbait, eta momen-

tuan ez da inongo mugimendurik sumatzen asuntua nolabait moldatzeko.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ZALAIN

JATETXEA
 EGUNEKO MENUA ETA KARTA
 Zalain Auzoa
 ☎ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LORA DENDA

TXIRULA
 Bittiria LESAKA
 ☎ 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Arantza

Olentzero eta erregeen oparien ondotik eskiatzen dabilta haurrak

Nafarroako Euskal kantu txapelketan sari berezia eskuratu zuen herriko sei neskek osatutako taldeak

GARBIÑE ETA ELIXABET

Dagoeneko Isaban eskiatzen egonen dira 6., 7. eta 8. mailako neska-mutikoak. Astebete pasatzera joan dira, urtarrilaren 7tik 12ra. Hamazazpi ikasle eta bi maixu dira, Ixabel eta Andone. Aterpe batean pasatuko dituzte gauak, Asolaze kanpinean, hain zuzen.

Olentzero

Urtero bezala, Eguberrietan olentzero iritsi da. Abenduaren 24an, herrian zehar borts olentzero paseatu zituzten. Ohiturari segituz gero, bihar-monean erre egin behar ziren, bainan eguraldiak lagundu ez zuenetz, aurtengoagatik libratu ziren. Frontoian



Abenduaren 17an eskolako haurrek beraien antzerkia antzestu zuten. Guztira borts antzeslan ziren eta bildutako jendea hagitz gustora atera zen. Bi zareak ere zozketatu ziren baita jabeak azaldu ere.

haurren jokoak egin ziren, baita silla-dantza ere eta denentzako sariak izan ziren.

Udal langilea

Herriak, INEMen bitartez langile berri bat hartu du, Agustín

Madariaga. Hiru hilabetez ariko da lanean, mendiko lanetan eta herrian bertan.

Euskal kantu txapelketa

Nafarroako euskal kantu txapelketara he-



Marta, Amaia, Nerea, Idoia, Elena eta Belen: Nafarroako euskal kantu txapelketan finalera ailegatu zen herriko kantari taldea. Donezteben sari berezia eskuratu zuten gainera, beraien asmatutako kantuarengatik

rriko neska talde bat aurkeztu zen *Arantza* izeneko abesti batekin. Beraien asmatutako kantua zen. Leitzan ospatutako lehen kanporaketan Donezteben abenduaren 16an bu-

rutu zen finalerako txartela eskuratu zuten. Bordatxon ez zuten irabazterik izan, baina sari berezia eskuratu zuen beraien abestiagatik. Beraz, zorionak!

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta
mozkor saltsa

Altzate 28 • BERA

Sunbilla

Antzakaitzak kultur taldeak ekitaldiak antolatatu nahi ditu

Horretarako bilera ospatuko da Fondan larunbat honetan arratsaldeko 3etan

IXABEL ETA JOSUNE

Antzakaitzak kultur taldeak egindako aurten goi lehenengo ekitaldia, Erregeen kabalgata antolatzea izan zen.

Kultur talde honek, urtean zehar ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa du eta horretarako bilera bat deitu du, interesatuak dauden guzkiek parte hartzeko eta bere ideiak jakinarean gainean jartzeko. Bilera larunbat honetan, urtarrilak 13, egingen da Herriko Fondan arratsaldeko 3etatik aitzinera.

Antzakaitzak taldekoek adierazi dutenez, "herriko mutilak ea animatzen zareten, orain arte 16 neska elkartzen baikara, muti-



Hilabete bukaeran ospatuko dira iñauteriak. Dagoeneko jende aunitz somatzen da tramankulu eta tresnak alde batetik bertzera eramaten. Beraz, aurten ere ez dira faltako argazkikoa bezain karroza ederrak.

likgabe". Izan ere, kultur ekintzak denendako izanen dira.

Urtezahar Eguna

Urtezahar Eguna,

giro ederrean pasatu zen. Hainbat jende Ulibeltzak elkartearen agurtu zuen 1995. urtea eta ongietorria eman zion urte berriari.

Bertze urtetan baino gazte jende aunitzez gehiago izan zen. Musika ere ez zen faltatu, noski. Donamariako Onofre akorde-

olariaren doinuekin, saltoka eta dantzan agurtu genituen bi urteak.

Emakumeen afaria

Iñauteriak gainean ditugu eta karroza eta mozorroekin batera, bertze ekitaldiak egingen dira. Honela, azken urteetan bezala, emakumeen afaria iñauterietan egingen da, urtarrilaren 26an, hain zuzen ere. Horretarako, soziedadean lista bat paratua dago, apuntatu nahi duen edonorentzat. Aurten, gainera, nobedade bat izanen da; afaldu ondoren trikitilariak izanen dira, ortziral gau guztia dantzatzen egon ahal izateko. Iñauteriak hasteko modu egokia, duikabe.



TELLETXEA MOBLEAK

Rosa Seminario z/g • ☎ 45 02 58 • DONEZTEBE

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzko altzarietan erakusketa handia.



**Ate korrederadun
Armairuak**

Doneztebe

Igerilekuak moldatzeko lanak 40 milioi pezetako aurrekontua du

Lanak lehenbaitlehen hasi nahi ditu Udalak, uda honetan pistzina ireki ahal izateko

TXEMA ALDABE

Udal igerilekuaren moldatze lanak egiteko lehiaketa deialdia luzatu du Herriko Etxeak. Hasierako aurrekontua 39.726.215 pezetakoa da, horietatik 36.603.828 berez lanei dagokiena, eta gainerako 3.122.387 pezetak Patxi Txokarro eta Maria Urmenetak egindako proiektua ordaintzeko.

Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren erdia ordainduko du. Udalak, bere aldetik, lan honetarako ia 38 milioi aurtengo aurrekontuan sartuko ditu eta gainerakoa joan den urteko 'pistzinen haunditzea' partidan sartu da (1.736.657 peza). Modu honetan, bi urteko subentzioa jasotzen ahal da.

Proiektuan, pistzina zabaltzeaz gain, aldagelak eta kiosko-osatua egitea aurrikusia dago eta lanak ekainetarako bukatu nahi dira.



Arkupeak jubilatatu elkartekoek bazkariarekin agurtu zuten 199ra

Argazkia: KARMELE

Maisu-maistren etxebizitzetako hiru pisu alokatzeko

Maisu-maistren etxebizitzan hiru pisu alokatzeko baldintza plegua eta egin beharreko tramiteak onartu ditu Udalak azken batzarrean.

Alokairua enkante edo subasta bidez atarako du Udalak, honela errekurtsio guttiagoduten familiei ere etxebizitza eskuratzeko

aukera eman asmoz. Alfredo Zugarramurdik pisuak alokatzearen kontra eman zuen botua. Bere ustez, maisu-maistren etxea saldu egin behar da eta diruarekin eskola kontzentrazioarako lur eremuak erosi. Gainerako zinegotzi guziek pisuak alokatzearen alde agertu ziren.

Behinpin eta Langarra lokal eskean

Langarra euskara taldeak eta Behinpin kultur taldeak beraien ekitaldiatarako lokala eskatu dute maisu-maistren etxean. Udalak, asilo zaharrean egin beharreko erakuntza berria egiten denean beraien eskaera kontuan hartuko dela erantzun zuen.

ttipi-flash

❖ **Erreka taldeko** Eguberrietako zari ederra 24.572 zenbakiari egokitu zaio. Zenbaki hau duenak dei dezala 450271 telefonora.

❖ **Santa Luzia** eguna, abenduaren 13a, izanen da aurten herriko besta eguna. Hasiera batean San Pedro eguna izatekoa zen, baina larunbata denez, jostunen egunera pasatu da.

❖ **Alkate eta zinegotzien soldatak**

Alkatearen urteko soldata gordina 343.125 pezetakoa izan da, alkateordearena 123.750 pezeta eta zinegotzi bakoitzarena 61.875 pezetakoa.

❖ **Kanposantua** mantentzeagatik 80.000pta jaso ditu Pascasio Gastesik.



Asteburuetan kontzertuak

Igandea 14, 8,30etan: **KE + DA**

Larunbata 20, 10,30etan: **ETZAKIT**

Igandea 21, 8,30etan: **KING MAFRUNDI**

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • 450991 • DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA

Urte berri on!

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Malerreka

Babes Ofizialeko zortzi etxebizitza eginen dira Iturenen

Plaza eta Lasaga auzoaren artean eginen lirateke eta proiektua idatzia dago

IBAN ISASI

Iturengo Plaza eta Lasaga auzoaren artean babes ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko proiektua akitua du Herriko Etxeak.

Orain, lanak lehia-keretan aterako dira, baldintzen oinarriak erabakitzen diren bezain laister. Josetxo Iparagirre alkateak adierazi duenez, "herrian etxebizitza eskari haundia dago". Iturengo Herriko Etxeak, familia bakarreko edo bi familiendako etxebizitzak egiteko baimena bakarrik ematen badu ere, zortzi etxebizitza hauek bi bloketan eginen dira, hau da lau etxebizitza eraikin bakoitzeko. Alkatearen erranetan, "dagoen eskaria kontuan hartuz, etxebizitza merkeak egin nahi ditugu eta horregatik lau bizitza-ko etxeak egin dira".

Olentzero

Aurtengoan hiru olentzero atera ziren: Aurtizko haurrak eskean aritu ziren eta hurrengo egunetan lortutakoarekin txokolatada egin zuten. Bertze biak, Iturenen. Arratsaldean, haurrak ibili ziren eskean Lasaga



Iturengo etxebizitza premia neurri batean betetzeko babes ofizialeko zortzi etxebizitza eginen dira laister

Argazkia: Artxiboa

eta Iturenen. Maitxeneako Gorka poni baten gainean olentzero-rena egiten ibili zen. Arratsean, nagusiek antolatutakoa izan zen, trikitilari eta joaldunekin. Euskal preso eta

errefuxiatuak gogortuz gartzela bat eraman zuten gibeletik.

San Silbestre laisterketa

Maika Ariztegi gel-dirik ez dagoela argi gelditu da berriz ere.

Aurtengoan Iruñeko karraketan egiten den San Silvestre laisterketan lehenengoa gelditu zen emakumeen artean.

Iñauteriak

Eguberri egunean, bi-

lera izan zen Iñauterietako antolakuntza lanak banatu eta ardurak hartzeko. Aurtengoan urtarrilaren 27tik 31ra izanen direla eta otsailaren 3a kontuen eguna izanen da.

Sarasua anaiak Doneztebeko zinean hiltzaren 20an

TXEMA ALDABE

Jon eta Aitor Sarasua anaiak 'Fauna txiki bat bertsotan' beren lana eskainiko dute hiltzaren 20an, arratsaldeko 7etatik aitzinera Doneztebeko zinean. Musika tresna ezberdinekin lagun-

durik, beraien diskatik ateratako gaurkotasuneko gaiei buruzko bertso ederrak kantatuko dituzte. Ekitaldi hau Malerrekako IKA euskaltegiak antolatua da, hiltzako matrikulazio kanpainaren barnean.



ttipi-flash

Euskara ikasteko matrikulazio

epea idekia dago Malerrekako IKA euskaltegian, hiltzaren 26a arte. Interesa duten guzkiek 451555 telefonora deitzea aski dute eta horren berri zehatzagoa emanen zaie.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Lizun

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Zozaia eta Doneztebe arteko trazatuaren proiektua 31 milioi gostako da

TTIPI-TTAPA

Zozaia eta Doneztebe artean egin nahi den errepide trazatu berriaren proiektua idaztea 31.030.000 pezeta gostako da. Kopuru horretan adjudikatu ditu lanak Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako Sailak. Proiektua, 'V.S. Ingenieria y Urbanismo, S.L.', 'Francisco Jiménez' eta 'Geocontrol, S.A.' enpresek egingen dute elkarlanean.

BELATEKO LANEN BARNEAN KOKATUTAKO PROIEKTUA

Proiektua idazteko epea borts hilabetekoa da. Gogoratuko denez, lan hau Belateko lanen barnean kokatu zuen Nafarroako Gobernuak 1991n onartutako proiektuan. Lehenik Arraitzko Bentak eta Zozaia arteko lanak egiten hasi ziren. Dagoeneko, Almandoz eta Belateko tunelak izan ezik, zati guztiak trafikoari zabalduak daude.

Zozaia eta Doneztebe arteko zatiari dagokionez, Bertizarana inguruan, Bidasoa erreka eta mendiaren artean doan eta Legasa eta Oieregi elkartzan dituen bidearekin lotura alternatibo bat egitea aurrikusten da, inguruko baserriei zerbitzua emateko.

Doneztebe eta Bertizaranako Hirigintza planeamenduak berrikusteko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Sailak Hirigintza Planeamenduak berrikuste-

ko dirulaguntza bana eman die Bertizarana eta Doneztebeko udalei, Nafarroako bertze 51ri bezala. Bertizaranako udalak,




2.700.000 pezeta hartuko ditu, 1.890.000 pezeta aurten bertan eta 810.000 pezeta 1997an. Doneztebeko udalak,

berriz, lau milioi terdi pezeta hartuko ditu, 3.150.000 pezeta aurten eta gainerako 1.350.000 pezeta datorren urtean.

P.A.C. 96

CAJA RURAL DE NAVARRAren "AZALERA ETA AZIENDENAKO LAGUNTZA" ZERBITZUA

LEHEN SEKTOREA LAGUNTZEN ESPEZIALISTAK



'Azalera eta aziendendako Laguntza' zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu.

Etor zaitez Caja Ruralera eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

1996-1997 Komertzializazio Kanpalarako Azalerengatik Laguntza Eskaria (1996ko uzta), 1996ko azienda sariak eskuratzeko bazkalekuen deklarazioa

eta ardi, ahuntz eta behi haragi produktoreendako eta 1996rako behi amak mantentzen dituztenendako Laguntza Eskaria.

LAGUNTZA ESKARIA
ORAIN BAITA **ARDI, BEHI**
AMA ETA ARETZE
LAGUNTZENDAKO ERE



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

Herri ingurua txukun mantentzeko deialdia luzatu du Udalak

Bestalde, Herriko Etxeko teilatua berritzeko obrak hamalau milioi t'erdiko aurrekontua izango du

ESTEBAN AROZENA

Etxez etxe banatu berria den bando batek dioenez, mendian zaborrak botatzea 25.000 pezetako isunarekin zigortua egongo da. Zaborrak botatzeko leku bakarra kontenedorea dela oroitarazten die udalak herriarrei, eta mobile, elektrogailu edo beste edozein traste zahar etxetik kendu beharrean aurkituz gero, Herriko Etxean galdetzea nahikoa da, han esango omen zaie eta non utzi daitezkeen.

Dirudienez, garbitu berria den Ikatzola errearen urbazterretan mota guztietako zinkkeriak agertzen ha-



Gaztea beti gazte. Esaldi egokiagorik ezin da aurkitu Atotxako futbol zelaian gertatutakoa deskribatzeko. Gazteak (ezkerrean) 6-1 nagusitu ziren herritar guzien ahotan egon zen desafio ikaragarri batean. Bigarren edizioa prestatzen hasi omen dira dagoeneko, horretarako zaharrek fitxaketaren bat egin beharko badute ere.

si dira berehala, labardoraren bat besteak beste. Honek, haserrea sortu omen du korporazioan, eta alkatesak esan zigunez, hauxe da aipatutako neurriak hartzearen arrazoi nagusia.

Herriko Etxeko teilatua 14,5 milioitan berrituko da

'Zabala y Goikoe-txea, C.B.' enpresari adjudikatu zion udalak Herriko Etxearen teilatua berritzeko obra. 14 milioi t'erdiz pezetako aurrekontua

aurkeztu zuen erakuntza enpresa honek. Beste eskaintza, garestiagoa, 'Jose Cerein, S.A.'rena zen. Lan hau Hirurteko Plangintzaren barne-

ansartu du Nafarroako Gobernuak. Herri Administrazioioko sailak 6.815.330 pezetako dirulaguntza eman du. Zabortegia mol-datzea ere sartu da.

Areso

Urtea bukatzeko hiru antzeslan eskaini zituzten eskolako umeek

Urtetik urtera irudi gehiago dauzka plazako jaiotzak

JUANA M^a SAIZAR

Garaiko kontuekin joan zitzaigun urte zaharra. Herriko plazan jaiotza jarri zuten. Urtetik urtera irudi gehiago dauzka eta aurtengo berriak erregeak izan dira. Honen ardura eta antolaketa herriko guraso batzuei dagokio.

Eskolako lehen hiruhilabeteari festa batekin eman zitzaion bukaera. Hiru antzeslan



eskaini ziren, 'Martixio asmatzailea', 'Zapatari

txikia' eta 'Goenkale'-ko atal bat. Bukarera

olentzeroaren bisita izan zuten umeek.

'Goenkale' ETBko saio batekin batera, 'Martixio asmatzailea' eta 'Zapatari txikia' izeneko antzeslanak eskaini zituzten eskolako neska-mutikoek

Arg.: Juana Mari

Eguberri bezperan umetxoek gabon kantarekin etxe guztiak alaitu zituzten.

Bestalde, laugarren urte herriko ume, ama eta gaztetxo talde bat Bilboko Jolas Parkera joan zen urtarrilaren 3an. Goizez eta arratsaldez nahiko jostatu ondoren, gaueko 8ak aldera bueltatu ziren. Eskurtsioa guraso elkarrekin antolatzen du eta umeen gastuak ordaintzen ditu.

Leitza

Herriak harrobiei buruzko erabakia hartu nahi du

Mila sinadura baino gehiago aurkeztu dira hori eskatuz

JOSEBA AZPIROZ

'Convia, S.A.' enpresak Albiñon ofita harrobia eta 'Aridos de Navarra, S.A.' enpresak Kordobanen karaitze harrobia eraiki nahi dituztela eta, herriaren sortutako kezkarren ondorioz herri baztarrea egin zen. Bertan, gaiaren garrantzia dela eta, herriak erabaki behar duela aipatutako harrobiak baimendu behar diren ala ez erabaki zen. HBk erreferendum proposamen hori aurkeztu zuen baina udalbatzak ez zuen onartu. Beraz, sinadura bilketari ekin zaio eta milatik gora bildu dira. Nahiz eta batzuentzat erabakia herriaren eskuetan uztearen arrazoia "zinegotzientzat arinago dela" izan, beste askorentzat, herritarrek erabaki honetan parte hartzeko erakutsi duten nahiak beren arduraren erakusten du.



Albiño eta Kordobango harrobiekin zer egin erabaki ahal izateko mila leitzarren sinadurak bildu dira Artxiboa

31 haize errota jarriko dira Aritz inguruan

Udalak 'Energia Hidroelectrica de Navarra' enpresak Aritzko haize errota jarriko eskatutako planaren aldaketari behin-behineko baimena eman dio. Plan berezi honen ondorioz 31 haize errota izanen dira 22 beharrean, lur eremu haundiagoa hartuz eta batetik bestera distantzi gutxiago utziz

(100 metro beharrean, 81 m.). Hilabete batez proiektua udaletxean izanen da ikusgai, alegazioak aurkezteko. Udalak eta enpresak informazioa zabaltzeko zenbait aktibitate egitea pentsatzen ari dira: mahai inguruak, erakusketak, irrati saioak... Aritzko parkearen aurrekontua 3.296 milioikoa da.

Bestalde, 1996an aplikatuko diren tasak onartu ditu udalak:
Ura: hasierako 40 metroak 686 pezeta. Kontsumoa 29 pta/m.
Zaborrak: 1.436 pta hiruhilabetero.
Larreak: -Azienda nagusiek, 1.340 pta.
 - Ardiak, 136 pta.
Haurtzaindegia: ekaina arte 2.500 pta. Irailetik aurrera 4.000.

ttipi-flash

- ❖ **Industrialdeko saneamendua eta ur-hornidura**
 'Construcciones Goikoetxea' enpresak eginen ditu industrialdeko lehen faseko ur-hornidura eta saneamendu lanak, 5.065.525 pezeta-ren truke, aurkeztutako lau enpresetatik berak egin baitzuen eskaintzarik merkeena.
- ❖ **Su-hiltzaile boluntarioen ekipamendua** hornitzeko bi milioi pezeta dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak Barne Sailak.
- ❖ **59 lagun Euskara Zerbitzuko bi lanposturako**
 Leitza-Larraun-Ultzamako Euskara Zerbitzuko teknikaria izateko bi lanpostuetarako oposizio-lehiaketa deialdira berrogeita hemezortzi lagun aurkeztu dira. Frogak urtarriaren 24an, goizeko 9etan hasiko dira Leitza Udaletxean.

BEINTZAko OSTATUA
 Tfnoa: 45 00 14
 BEINTZA-LABAIEN

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
 Elgoien 32
 Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

ttipi-ttapa
 6.200 harpidedun
 21.000 irakurle

Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

© 63 11 88



Baztan

Baztan ikastolak 25. urteurreneko liburua aurkeztu du

Ikastetxearen historiarekin batera, urte hauetako hainbat argazki biltzen ditu argitalpenak

A.A.

Elizondoko Kasino-ko areto nagusia jendez gainezka ageri zen abenduaren 30ean Baztan ikastolaren lehendabiziko 25 urte-tan bizitako momentu garrantzitsuenak biltzen dituen liburuxka-
ren aurkezpena.

Gaur egungo ikasle eta irakasleekin batera, urte hauetako hainbat ikasle eta guraso agertu ziren, liburua 1.000 pezetan erostearekin batera, egitarau zabalak eskaintzen zituen ekitaldiak ikus eta aditzera. Lehenik haurrak aritu ziren kantari, 25 urte hauetan irakasle izan den M^a Karmen Goñiren zuzendaritzapean. Ondoren, Martin Gardek liburua aurkeztu zuen, "mende laurden bateko oroitzenak jasotzen dituela" erranez. Ondoren, Elizondoko abesbatzaren emanaldia burutu zen. Hainbat kantu eskaini zituzten Juan Erasoren aginduetara, arratsaldeko txalorik beroenak jasoz. Azkenik, ikastolako akordeolarien doinuekin bukatu zen aurkezpen ekitaldia.



Ikastolako neska-mutikoak kantari aritu ziren, abesbatza bezalaxe. Liburuaren aurkezpena Martin Gardek egin zuen Argazkia: Aitor A.

Aritzakungo bidea moldatzea Hirurteko Plangintzaren barnean sartuko da

Aritzakungo bidean uholdeek sortzen dituzten kalteak moldatzeko eta, ahal den neurrian, ez gertatzeko, neurriak hartu nahi ditu Udalak. Momen-

tuz, Nafarroako Gobernuak Hirurteko Plangintzan sartu dituzten moldatze lanak. Aurrekontu osoa 5.162.303 pezetakoa da eta Nafarroako Go-

bernuak % 65ean finantziatuko du (3.355.497 pezeta). Gainerako 1.806.806 pezetak ordaintzeko kreditua eskatuko du Balleko Etxeak.

ttipi-flash

❖ Bergara eta Beartzungo zabortegeiak

itxitzeko lanak Hirurteko Plangintzan sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Inguruan hedatuak dauden zaborrak bildu ondotik lurra-
rekin estaliko dira. 10.105.544 pezetako laguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.

❖ Hirigintza planeamendua errebisatzeko

13.710.000 pezetako dirulaguntza jaso du Balleko Etxeak Nafarroako Gobernutik. 9.597.000 pezeta datorren urtean jasoko dira eta 4.113.000 pezeta 1998an.

❖ Amaiurko monumentua

moldatzeko Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza galdu da, sei hilabeteko epean ez baitira lanak hasi. Orain, Biana-ko Printzea erakundeari lanak ordaintzea eskatuko zaio.

BAZTAN

FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

Oronoztarrek Goñi-Otxandorena eta Juanjo Atxa omendu zituzten

Bikoteak, DV txapelketa irabazi zuen gazteen mailan eta Atxari pilota munduaren alde egindako lana eskertu zitzaion

Josu INTZIARTE

Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorena, oronoztarrek abenduaren 23an, DV antolatutako laugarren pilota torneo irabazi zuten gazteen mailan. Zarautzen Mikel txalpetako pilotari onena izendatu zuten. Hori dela eta, Oronozko herriak torneo hori irabaztea ospatzeko eta batez ere, Almandozko Juanjo Atxari pilota munduaren alde egindako lan handia eskertzeko bi pilota partidu antolatu zituen urtezahar egunean.

Lehenbizikoan, Toni Huarte arizkondarra eta Aitor Rementegi Anizkoak 18-16 irabazi zioten Josebaeta Carmelo Berro Oronozko anaiei.

Bigarren partiduan, Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorenak, Abel Barriola leitzarra eta Mikel Atxa almandoztarraren aurka jokatu zuten. Laurek izu-



Urte Zahar egunean Auzara irteera antolatu zuen Baztango Mendigoizaleak elkarteak, 1988ko abenduaren 24an Orhi mendian hil ziren Peio eta Ramonen omenez

Argazkia: Ixabel Aleman

garrizko partidua egin zuten eta 25 tantura luzatu zen, publikoak eskatuta. Azkenean 25-22 bukatu zen partidua oronoztarren alde. Ondoren, alkateak plaka eskaini zion Juanjo Atxari. Almandoztarrak hainbat urte eman ditu Baztango pilota eskolako irakasle modura eta omenaldi honen bidez, lan hori eskertu nahi zen.

139 milioi Belate inguruan landare eta zuhaitzak sartzeko

Nafarroako Gobernuak 139 milioi pezetako inbertsioa egingen du Belate ingurua birlandatzeko. Lanak, Nafarroako Mindegiak enpresak egingen dituen kopuru horren truke.

Lanak 1996 eta 1997 urteen artean egingen dira. Guztira 620.975 m² landatuko

dira. Hazia urarekin ereingo da, 'hidrosiembra' bezala ezagututako sistemaren bidez. Ondoren, 35.514 zuhaitz sartuko dira. Eraberean, zuhaixkak eta bertzelako landare tikiagoak sartuko dira. Bertan ongi laketzen diren espezieak sartuko dituzte.

ttipi-flash

Oronozko elizako

kanpoko paretak laister konponduko dira. Aurrekontua 1.700.000 pezetakoa da. Famili bakoitzak 15.000 pezeta ordainduko ditu eta Elizak, berriz, 250.000 pezeta.

Iruritan kultur ekitaldiak

burutu dira Eguberrietan zehar. 'Casa de Quiros' antzeslana taularatu zuten.

Elizondoko kanposantuko

zaindari posturako lehiaketa plazaratu du Udalak.

Ana Mari Marinek

Elizondoko alkatesa postua hartu zuen Errege egunean.

Ehizaldia

Baztan eta Erroko ehiztariak Kintoko basurde eta oreinak ehizatzen ari dira aste honetan.

Hileta elizkizunak

Hainbat jende bildu zen Elizondoko elizan Carlos Lopez Santxotena eta Jose Ignacio Goienetxe Istilart gazteen alde.

ERTZILLA

ALBAITARITZA

KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 2etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, © 580627

Larrialdiak: © 580762

ELIZONDO

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •

Dokumentazioak

Bezitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60

Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa: 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Galarza

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013

ELIZONDO

Urdazubi

Urtexaharra ongi joan zen eta berria hobeki etorri da

San Anton Eguna eta Karretero etxeko XII. mus txapelketa, hurbilen dauden ospakizunak

ALIZIA OLAIZOLA

Aurtengo Eguberriak giro ederrean joan dira, urte zahar afaria Indianoa-baitan ospatu zuten gazteak eta berteak. Kanpotarrak ere baziren, Murtziatik etorritako gazte talde bat, hemen ospatu baitzuen urtexaharra. Afalondoan dantzaldia Modestorekin izan zen, goizaldera arte.

XII. mus txapelketa

Indianoa-baitan, Karretero etxean, alegia, laister hasiko da hamabigarren mus txapelketa. Bikoteek urtarrilaren 6a arte izan zuten izena emateko epea.



San Anton eguna ospatuko dute laborariak

Laborariak urtarrilaren 17an pentsatzen hasiak dira, San Anton beraien eguna baita. Ohitura den bezala, meza ospatuko da eta ondoren, bazkaria izanen da.

Giro ederrean pasatu ziren Eguberriak. Galdetu bertzenaz argazkiko neska-mutikoei

Hirigintza planeamendua egiteko dirulaguntza Urdazubi eta Zugarramurdiko udalei

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailak Urdazubi eta Zugarramurdiko hirigintza planeamendua egiteko laguntza eman du. Urdazubiko udalak 2.480.000 pezeta jasoko ditu, 1.736.000 aurtan eta 744.000 1997an. Zugarramurdikoak, 2.080.000 pezeta jasoko ditu, 1.456.000 aurtan eta gainerakoa, 1997an.

Zugarramurdi

Herrian besta eginez eman zitzaion despedida urte zaharrari

Ortziralean Iñurrategi anaiak Himalayako berri eman zuten

MARGARI ETA KORO

Despeida pullita egin zitzaion urte zaharrari herritik mugitu gabe. Herriko Etxeko jatetxean 68 lagun bildu ziren, eta Gandesenean 30.

Besta herrian bertan egin zen eta plazak bestetako giroa hartu zuten. Gau horretan autorik ez hartu beharrik izaita abantaila haundia baita.



Giro alaian ospatu zen Urtezaharra

Iñurrategi anaiak

Antzerki Aretoan izan genituen urtarrilaren 5ean. Mendizale ospetsu hauen azkeneko ibilaldien diapositibak ikusteko eta hitzaldi bat entzuteko aukera izan genuen: Himalayako bi mendi; *Cho-oyu* (8.189 metrokoa) eta *Lho-Tse* (8501 metrokoa).

Ikusi zutenek izigarri polita eta interesgarria izan zela zioten.

Sara

Axularren itzala hedatu da Sara, Azkaine eta Zugarramurdin barna

Gaztetxea, Altxa Lili eta Akelarre elkarteek antolatutako ekitaldiak burutu dira abenduan

MIXEL ETA JACQUELINE

Abendua joan zai-ku eta hunekin batean Azkaineko Altxa Lili, Sarako Gaztetxea eta Zugarramurdiko Akelarre elkarteek antolatua zuten kultur hilabetea ere. *Axular eta denbora* gaiaren inguruan egin da eta eskaini ekitaldiek jende poli-ki bere etxetarik aterarazi dute. Lehen urterako gazteek urrats ezin hobea egin dute kulturaren alde. Agian aurtengo kultur hilabetea sail luze baten hasiera izanen da. Geroak erranen!

Gure presoetarik hurbil...

Berrehun bat jendek Pariseko bidaia burutu zuten presoeri nola



'Gizakia Denboran' margola hau ikusten ahal zen liburutegien erakusketa baten kariatara. Mikel Dalbret miarritarrari zor diogu.

baiteko elkartasunaren adierazteko. Orain arte itzuli hori baldintza onetan egin bada, aurtent polizak bere indarkeria erakutsi du eta

bederatzironez jendeak bahituak izan dira. Bada hortaz zer pentsa, zer erran. Presoetat urtean behin gogoratzea guti bada

ere, bat ere ez baino gehiago da. Gure atxikimendua ahalik eta gutun gehien bitartez erakutsi behar dugu. TTIPI-TTAPAREN me-

dioz nahi ginuzke denak agurtu eta ongiantzarik beroenak eskaini urte berrirako adixkide guzien izenean. Atxik!



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • @ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-ren baratzaile
baimendua*



HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendian

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA
KIROL TROFEOAK



Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

EZKONTZAK

Luis M^a Altxu Elizagarai eta **M^a Jesus Urtasun Jaime-rena**, Oronoz eta Iruritaikoa, abenduaren 16an.

Josu Intziarte Irureta eta **Miren Zutoia Gortari Sein**, Oronozkoak, abenduaren 8an.

JAIOTZAK

Javier Carbayude Iturburu, Elizondokoa, abenduaren 22an.

Gaizka Oteiza Migeltorena, Oronozkoa, abenduaren 18an.

Jaione Rodriguez Etxepare, Lesakakoa, abenduaren 4an.

Joseba Seisededos Larraizar, Lesakakoa, abenduaren 12an.

Laura Erasun Elizondo, Beintza-Labaiengoa, azaroaren 29an.

Ibai Iribarren Larretxea, Urrotzkoa, abenduaren 23an.

Aritz Mendiberri Otxandorena, Donamariakoa, abenduaren 3an.

Jon Jaen Ariztegi, Oitzkoa, azaroaren 17an.

Laurendi Zelaieta Fernandez, Oitzkoa, abenduaren 9an.

Irati Errandonea Zozaia, Berakoa, abenduaren 12an.

Olaia Igoa Mindegia, Eratsungoa, abenduaren 11n.

HERIOTZAK

Juana Etxegarai Ariztizabal, Arraiozkoa, abenduaren 13an, 89 urte.

Jose Goñi Desgrans, Elizondon, abenduaren 13an, 83 urte.

M^a Josefa Agesta Vicente, Elizondokoa, abenduaren 13an, 85.

José Benito Esteban, Elizondon, abenduaren 14an, 60 urte.

Elvira Delgado Mate, Elizondon, abenduaren 16an, 88 urte.

Valeriana Irigoien Argiñena, Iruritaikoa, abenduaren 21ean, 89 urte.

J. Carlos Rabago Cosio, Oronozen, abenduaren 21ean, 31.

Fernando García Cosio, Oronozen, abenduaren 21ean, 25.

Tomás de Pedro Puertas, Oronozen, abenduaren 21ean, 21.

Ignacio Mortalena Orkin, Elizondokoa, abend. 23an, 59 urte.

Josefa Etxeberria Etxabe, Arizkungoa, abend. 24an, 91 urte.

Fermin Larnagarai Iriarte, Azpilkuetakoa, ab. 25ean, 67.

Felisa Lazkano Larunbe, Arizkungoa, abenduaren 28an, 84.

Jose Bayones Etxeberria, Elizondon, abenduaren 31n, 81 urte.

Esteban Saralegi Zabaleta, Leitzakoa, abenduaren 3an, 67 urte.

Jose Erasun Mindegia, Iturengoa, abenduaren 22an, 87 urte.

Auguste Olaizola, Sarakoa, abenduaren 21ean, 69 urte.

Maria Ducasse, Sarakoa, abenduaren 29an, 95 urte.

Maria Eizagirre Garate, Berakoa, abenduaren 19an, 80 urte.

Pedro Arretxea Agirre, Berakoa, abenduaren 31n, 42 urte.

Jose Luis Urtxegi Telletxea, Berakoa, abenduaren 31n, 52 urte.

Feliciano Irazoki Irazoki, Berakoa, abenduaren 23an, 84 urte.

Leire Sorozabal Ansalas, Berakoa, urtarrilaren 1ean, urte 1.

Jose Ignacio Goienetxe Istilart, Elbetekoa, abenduaren 24an, 28 urte.

Carlos Lopez Santxotena, Elizondokoa, abenduaren 24an, 23 urte.



Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etxez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera haundia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak; t/b, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford... Argazki Erreproduzioak, Alburnak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agirien Plastikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25
31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55
31700 ELIZONDO

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

M^a Dolores Miñana
TOPOGRAFA

NEURKETA • PLANOAK



Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...

Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143
ELIZONDO

FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

GURIA

DROGERIA
LURRINDEGIA
OPARIK

Altzate, 37 • BERA
Tfnoa: 630388

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak088/061	
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
Erresidencia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidencia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	450475
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzailak	
Oronoz-Mugairi.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzaran.....	515018
Aberiak:	
Iberduero.....	450335 / 450336

Aurrerantzen hiru seme-alabekin 'Familia Ugaria' kontsideratuko da

Espainiako Lege berriak zabaldu egin du kontzeptua

Joan den azaroaren 3ko Erret Dekretu baten bitartez zabaldu egin da orainarte indarrean zegoen legea Familia Ugariari buruz. Jakina denez, katalogazio honetan sartzen diren familiak abantaila ugari dituzte

Hezkuntza, Garraio eta Etxebizitza kontuetan.

LAGUNTZAK

Lehen kategoriko familia izendapena hartzen dutenek, **hez-kuntza** ofizial eta pribatuko tasen %50eko deskontua izanzen du.

Bigarren kategoria eta Ohorezko kategorian sailkatuak daudenak, ordea, dohainik izanzen dute **hezkuntza**, eta guztiak, lehen tasuna izanzen dute diru publikoz ordaindutako ikastetxe ez unibertsitarioetan. **Garraioei**

dagokionez, deskontuak %20tik %50 bitartekoa dira kategorien arabera. **Etxebizitzei** dagokionez, babes ofizialeko adjudikazio barmoetan eta eragintza pribatuko etxebizitzetan ere, kontutan hartzen da Familia Ugari-koa izatea.



Zerriak hiltzeko sasoia da haxe baserrietan.

Abendu aldean hasi eta martxo-rarte, zientoka 'matantza' egiten dira herri guzietan. Tradizio eta zeremonia ugari izan dituen ohitura honek, halere, badirudi gaur egun ez dagoela hain indartsu. Baserriak ez ezik, zerriak ere dexente urritu dira etxeetan, eta zerri hiltzea bera, nabarmenki modernizatu da.

FAMILIA UGARIAREN LIBURUA ESKURATZEKO BALDINTZAK

Liburuki hau eskuratzeko, hiru seme-alaba edo gehiago izan behar dira 21 urtetik behitikoak, edo, 21 eta 25 urte bitartekoak baldin badira, ikasten, soldaduxkan edo PSSa egiten egon beharko dute. Gainera, seme-alabak familia buruarekin bizi beharko dute eta haren lepotik.

Tramiteak zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egiten ahal dira. Baztanen (580006 edo 581007), Bortzirietan (635036), Leitzaldean (610617) eta Mallerrakan (451746) telefonoetara deitu.

ARDI GAZTAK

Komitz Baserrian
GAZTELU - DONAMARIA

© 393101

ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

Nafarroa eta Errioxako kantxetan ari da Doneztebeko Erreka eskubaloit taldea

- ✖ 60 lagun inguru ari dira eskubaloian, infantil, kadete, jubenil eta seniorretan
- ✖ Eskubaloiaz gain, mendia, txirrindularitza eta crossa lantzen ditu Erreka elkarteak

Doneztebeko Erreka elkarteko eskubaloit talde nagusia 'Bigarren Nazional' izeneko ligan jokatzeko ari da Nafarroa eta Errioxako taldeekin batera, azken 7 urtetan bezala. Aurtengoan erdialdeko postuetan dabil, baina duela lau-bortz urte, txapelkun gelditu ondoren, igotzeko fasea ere jokatu zuen Asturias aldean. Halere, hogeitaz jokalari eta gaur egun zuzendaritza batzordekoa eta infantilen entrenatzailea den Txomin Mindegia- ren ustez, "kirol mailan igotzea lortu arren, ekonomia aldetik begiratuta uko egin behar harko genioke kategoriarik".

ENTRENATZEKO PROBLEMAK

Orain arte izan duen arazorik haundie-



Aurten erdiko postuetan badabilta ere, orain lau-bortz urte mailaz igotzeko ligaxka jokatu zuen Errekak Asturias aldean

Ar txiboa

na entrenamenduena izan da Txominen erranetan. "Jendea ez duk konturatzen jokatzeko entrenatu behar dela. Maila ttikitetan izaten genuen entrenadorea lortzeko problema haundiena, baina hori

moldatau dugu". Izan ere, behitiko kategoriatan bina entrenatzaile dituzte: infantiletan Txominekin batera Juan Telletxea ari da, kadetetan Iñaki Lizaso eta Eduardo Agirre, eta jubeniletan Feli-

pe Ganboa eta Jose Etxeberria. Guztien koordinatzailea Patxiku Ganboa da. Infantil eta kadetetan 15na jokalaria ari dira eta jubeniletan 13.

Bertzalde, maila haundiko jokalaria ba-

dira, arrazoi bategatik edo bertzearengatik eskubaloia utzi dutenak eta horiek, berriz eki- poan sartzerantz animatzen ditu Mindegia.

ESKUBALOIA BAINO GEHIAGO

Eskubaloiaz gain, bertze atalak ditu Erreka eskubaloit taldeak. "Orain hagitz ongi funtzionatzen duena mendia atala da" dio Txominek. "Hamabortzero ateratzen gara inguruko mendietara. Hasierako ateraldietan ehun lagunetik goiti biltzen ginen eta orain, 30-40 lagunetan normalizatu da". Txirrindularitza eskola ere martxan ari da. Besta aitzinetik crossa antolatzen du Errekak eta gizon eta emakumeendako pala txapelketa. Guztira milioi t'erdiko aurrekontua. ■

«Eskubaloian jokatzeko filosofia bat ezarri nahi dugu ttikitatik hasita»

■ Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

□ Denboraldi hasieran eskola bat osatzea erabaki genuen eta infantiletatik hasita helduak bitarte, eskubaloian aritzeko modu bat ezartzea. Hori da gure filosofia.

■ Senior mailan igotzeko asmorik?

□ Kategoriaz igotzea ez dugu helburu bezala paratzen. Ekonomikoki ezinezkoa izanen litzateke, gaur



Txomin MINDEGIA

Infantilen Entrenatzailea

egungo aurrekontua lau aldiz biderkatuko bailitzake. Noski, ahalik eta goitien bukatu

nahi dugu eta norreri ez zaio txapelkun gelditzea gustatzen...

■ Nongo jokalariai dituzue?

□ Infantiletan Mallerreka osokoak, Donamaria, Ituren, Elgorriaga... Kadetetan Doneztebekoak baino gehiago inguruko herrietakoak dira. Haundietan izanen da doneztebar kopuru haundiena, baina Elizondo, Legasa, Igantzi eta Berako jokalaria ere baditugu.

Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
Luis Miguel Apezetxea	Atezaina	25
Pedro Miguel Castilla	Atezaina	18
Oskar Mindegia	Pibotea	27
Rafael Zabala	Pibotea	27
Felipe Ganboa	Pibotea	22
Joxe Mari Anzizar	Hegalekoa	25
Mikel Iribarren	Hegalekoa	22
Patxi Irigoien	Hegalekoa	18
Jose Javier Indabere	1. lerroa	18
Juan Manuel Labiano	1. lerroa	27
Jesus Zabala	1. lerroa	26
Vidal Etxarte	1. lerroa	26
Iñaki Gonzalez	1. lerroa	23
Richard Altzuguren	1. lerroa	23
Jexus Irigoien	1. lerroa	20

Entrenatzailea: Luis M^a Goñi
Delegatua: Francisco Javier Blas

Joan den urteko kirol emaitzik onenak esku pilotak utzi zituen

Antton Maizen agurrarekin batera, txapel haundiak eskuratu dituzte eskualdeko pilotari profesional eta afizionatuek

Aitor AROZENA

1995. urteak kirol munduan utzi digunari erreparatuz gero, emaitza onenak pilota mundutik ailegatu direla nabari da.

Otsailaren 19an Espainiako eskuz binakako txapelketa irabazi zuten Retegi eta Errandoneak, finalean Unanue eta Zezeagari 22-17 irabazi ondoren. Inaxio, hilabete batzuk beranduago eskuz binakako finalera ailegatu zen. Belokiren kontra 22-15 galdu zuen. Salaberria goizuetarrak eta Belokik Euskadiko eskuz binakako lehen txapelketan nagusitu ziren. Halere pilotari profesionalen artean denak ez ziren berri onak izan eta martxoaren 4ean, hogeituz frontoitik frontoira ibili ondotik



Honelako argazkirik ez dugu gehiago ikusiko, baina eskualdeko pilotariak puntako txapelketak irabazten segitzea espero dugu Artxiboa

erretiratzeko ordua iritsi zitzaion Antton Maiz arantzarrari.

Taldeka, Baztan eta Malerrekako pilotariak biltzen dituen Txarutak Nafarroako Herriarteko finalera ailegatu zuen, baina Lizarraren

kontra galdu zuen. Goizuetako Umore Onak, berriz, Cluben arteko estatuko pilota txapelketaren ohorezko mailan jokatzeko txartela eskuratu berria du, datorren denboraldirako.

Iruñean burututako frontoi laburreko lehen mundu txapelketak eskualdeko hiru txapel-dun eman zituen, Apeztegia iturendarra eta Olaizola eta Apeztexea goizuetarrak, hain zuzen.

1995eko izendegia

✱ DONEZTEBE

Laxoa txapelketan nagusitu zen, ligan nahiz kopan.

✱ EZKURRA, Koteto

Bingo-Londres txapelketa irabazi zuen irailaren 2an Doneztebeko erremontelari gazteak.

✱ GARRO, Juan Carlos

Espainiako I. mendi bizikleta itzuliko bi lehendabiziko etapak irabazteaz gain tarteko helmugan saria irabazi zuen berritarrak.

✱ LARRETXE, Donato

Nafarroako txapel-dun eta Euskadiko azpitxapel-dun suertatu zen aizkolari arantzarrak.

✱ MARIEZKURENA, Idoia

Labaiendarra Euskadiko txapel-dun izan zen jabalina jaurtiketan eta Nafarroako emakumezko kirolari onena izendatu zuten.

✱ SARALEGI, Mikel

321 kiloko harria altxatuz munduko errekor berria ezarri zuen martxoaren 25ean Antzuolan.

✱ SOKATIRA

Nafarroako txapel-guziak eskualdean gelditu ziren, hiru Lesakan (680, 640 eta 560 kilo) eta bertzea Amaiurren (600 kilo).

Partehartze haundia Baztango street-ball eta Futbol-7 txapelketen bigarren edizioan

Baztango Street-ball eta Futbol-7 txapelketetako bigarren edizioak jokatu berriak dira. Street-ball txapelketan, hamabi talde aurkeztu ziren, guztira 46 jokalarirekin. Kirol hau saskibaloien gisakoa da, baina hiru lagun bertze hiruren kontra jokatzen dute, saski bakar batean. Elizondoko polikiroldegian jokatutako txapelketan, *Los Autistas* taldea (Marcos Etxaide, Miguel Ustariz, Enrique Petrirena eta Manuel Amorena)

nagusitu zen. Finalean 28-23 irabazi zion *Par-chis* taldeari (Xabier Huarte, Txemi, Fermín Iriberrí eta Agustín Mitxelena). Hirugarren eta laugarren posturako partiduan, *Señorio de Zuasti* (Guillermo Santos, Jose Antonio Oronoz, Patxi Apeztexea, Miguel Pruñaño) 41-24 nagusitu zitzaion *Los Peores* (Jose Enrique Garmendia eta Enrique, Javier eta Santi Bengoetxea) taldeari.

FUTBOL-7

Zazpi lagun ez osatu

tutako futbol taldeekin egindako txapelketa bi kategoriatan banatu zen. Haurren mailan, Ultzamako taldea nagusitu zen, 2. Baztan, 3. Lekaroz A eta 4. Lekaroz B.

Alebin mailari dagokionez, Leitzako *Aurrera* izan zen txapel-duna, 2. Berako Labiaga ikastolako *Bizkarzainak*, 3. Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeko taldea, 4. Doneztebe eta 5. Baztan ikastolako *Baztan Txiki* taldea.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Street-ball txapelketa Baztanen.

Lerro hauetan, gehien bat federatutako kirolariek aritzen gara, baina Baztanen bigarren aldiz burututako txapelketa horren arrakasta federatu gabeko kirolariei esker izan da. Bertze tokitan segitzeko moduko erredua.



Eskuz binakako pilota txapelketa.

Salaberria goizuetarra hasieratik kanpoan utzi zuten eta Inaxio Errandonea eta Julian Retegik ezin izan dute finalerdietara ere ailegatu. Aurtengo txapelketa ahazteko modukoa izan da. Hurrengoan beharko du.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KANTALDIAK

DONEZTEBE

► Hilbeltzaren

20an. Sarasua Anaiek 'Fauna txiki bat bertsotan' diska kantatuko dute arratsaldeko 7etan Doneztebeko zinean.

KONTZERTUAK

DONEZTEBE

► Urtarrilaren 14an

igandea, arratsaldeko 8,30etan 'Ke + Da' taldea Ekaitza Tabernan.

► Urtarrilaren 20an

larunbata, arratsedeo 10,30etan 'Etzakit' taldea Ekaitza Tabernan.

► Urtarrilaren

21ean igandea, arratsaldeko 8,30etan 'King Mafrundi' taldea Ekaitza Tabernan.

BILERAK

SUNBILLA

► Urtarrilaren 13an

urteko kultur programa antolatzeko bilera Herriko Fondan arratsaldeko 3etan.

EMAKUMEEN AFARIA

SUNBILLA

► Urtarrilaren 26an

Emakumeen afaria. Izena emateko zerrenda Ulibeltzak elkartearen dago.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Piperrak txangurroz beteak



Pello GARMENDIA

Eskisaroi
Jatetxekoa
• ELIZONDO •

Osagaiak

4 lagunendako

• 16 pikillo piper • 800 gr. txangurro egosi eta papurtua • 1/2 l. besamel • 3 goilarakada tomate presitua •

Saltsa egiteko

• tipula bat xehetua • azenario bat • 1/2 k. ganba buru • basokada bat whisky • 1/4 k. tomate • 2 goilarakada esnegain •

Prestatzeko manera

Txangurroa ur gazian egosi 15 minutuz. Azalak kendu eta haragia papurtu. Haragi hori besamelarekin nahi eta hiru goilarakada tomate gehitu. Gatz puntua hartu eta piperrak bete. Aparte, ontzi batean tipula eta azenarioa jarriko ditugu egiten olio pixka batekin. 5 minutuz egiten utzi eta ganba

buruak gehitu. Bertze 5 minutuz eduki eta whisky gehitu eta 15 minutuz egiten utzi. Tourmix-ean pasatu guzia eta esnegaina gehitu. Sartu piper beteak saltsan eta berotu 2 minutuz. On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.400 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 180 pzta/kilo
- **Zerramak**: 125-130 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 560 |
| 1.koa | 540 |
| 2.koa | 520 |

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 570 |
| 1.koa | 550 |
| 2.koa | 520 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
 - **Nabarrak:** urruxak 20.000 eta idixkoak 28.000 Pzta.
 - **Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 45.000 Pzta.
 - **Behi zaharrak:**
- | | |
|---|--|
| Behi nabar gizona: 400 Pzta./Kg. Kanal. | |
| Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanal. | |

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.
- **Muxika** 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Porruak** zientoa 300.
- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



☎ 635290
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

Lagun artean
gaxo-gaxo egoteko
leku egokia

Balnearioetara joateko deialdia luzatu du **INSERSOK**

Balnearioetan egonaldiak egiteko deialdia luzatu du urtero bezala Inserso erakundeak. Tokia eskatzeko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara eta Osasun Zentroetara (gizarte langilea baldin badu) joan behar da. Martxotik abuztu bitarte joan nahi dutentzat epea akabatzeko puntuan dago, urtarrilaren 11n itxiko baita. Irailetik abendu bitartejoateko, berriz, maiatzaren 9a bitarte luzatuko da epea.

Plazak, baremo baten arabera ematen dira eta hiru gauza kontutan hartzen dituzte: beharra, diru sarreak eta adina.

NORTZUK JOAN DAITEZKE?

- Gizarte Segurantzako pentsionistak direnak.
- Jubilazio edota ezintasun pentsioa badute, ez du adinak inportzen.
- Alargun edo bestelako pentsionistek 60 urte behintzat behar dute izan.
- Buruko eritasunik ez izatea eskatzen da ezta eritasun kutsakorrik ere.



Martxotik abuztu bitarte joateko, urtarrilaren 11 baino lehen egin behar dira eskaerak

- Bere buruaz baliatzea.
- Tratamenduaren beharra izatea.
- Eskaera epe barruan egitea.

EMATEN DITUZTEN ZERBITZUAK

- Egun osoko jana eta estantzia
- Oinarrizko tratamendu termalak: medikuaren errebi-

15 eguneko txandak izanen dira eta prezioei dagokienez, Arnedillo, Fitero eta Zestoakoak, 45.600 eta 49.600 pezeta artekoak dira, hilabetearen arabera.

sioa balnearioan bertan, honек agindutako tratamendua eta segimendua.

- Aseguruen poliza.
- 15 eguneko txandak izanen dira (14 gau) eta prezioei dagokienez, hurbilen daudenetan (Arnedillo, Fitero eta Zestoa) 45.600 eta 49.600 pezeta artekoak dira, hilabetearen arabera.

ZONALDEKO GIZARTE LANGILEAK

- Leitzan**
Virginia Eraso, ☎ 610617
- Baztanen**
Elena Urtasun, ☎ 580006
- Malerrekan**
Begoña Alberro, ☎ 451746
- Bortzirietan**
Itziar Iriarte, ☎ 635036

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



AGENDA EGUNEZ EGUN

SAN ANTON

ELIZONDO

- **Urtarrilaren 17an**
Ganadu feria eta urteroko zozketa
Baztango Zaharretxearen alde (behi bat, zerria, 2 bildots eta urdaiazpikoa)

ZINEA

DONEZTEBE

- **Urtarrilaren 13-14an** zine aretoan 'Leyendas de Pasión'.
- **Urtarrilaren 20-21ean** zine aretoan 'Morirás en Chafarinas'.

LEITZA

- **Hilbeltzaren 12-14an** zine aretoan 'Desperado'.
- **Hilbeltzaren 14an** zine aretoan 'El regreso de Yafar'.
- **Hilbeltzaren 19-21ean** zine aretoan 'Brave Heart'.
- **Hilbeltzaren 21ean** zine aretoan 'Los Picapiedra'.

GUARDIAKO BOTIKAK

- **Urtarrilaren 8tik 14ra** Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
- **Urtarrilaren 15tik 21era** Igantzi, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
- **Urtarrilaren 22tik 28ra** Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

BERA. Herrian dagoen etxea salgai dut, 1.000 m²ko lorategiarekin. ☎ 631422.

SUNBILLA. Etxe moblez-tatua alokatzen da. ☎ 450451.

ZUGARRAMURDI. 179 m²ko baserria salgai, 1,29 Hektareako kotoarekin, iturri eta guzi. Baita 23 areako belagia ere. ☎ 599119 (Urdazubi) eta 580537 (Azpilkueta).

DENETARIK

Kartelak, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

BARAÑAIN. Neska bat behar da pisu bat osatzeko, 11.000 pezeta eta gastuak. ☎ 181580.

BERA. 24 m²ko bajera salgai Altzaten. Motoa eta bizikleta uzteko tokia du barrukan. ☎ 630722.

LESAKA, 130 m²ko bajera salgai. ☎ 637404.

LESAKA. Lokala traspasoan. ☎ 637404.

KORTES. Udara pasatzeko etxea alokatzen da Nafarroako Erriberako Kortez herrian. ☎ 630332.

BARAÑAIN. Bi lagun behar dira pisu bat osatzeko. ☎ 610806 (1 etatik 2,30etara edo 9etatik 10,30etara).

Diapositiba proiektorea salgai. Kinderman Afs markakoa. Bi aldiz erabilia. Prezioa: 11.000 pzt. ☎ 393067.

Argazki kamara salgai, Pentax Me Super markakoa, Exakta 28-70 objektiboarekin. Prezioa: 30.000 pezeta. Beste objektibo batzuk ere badituz. ☎ 393067.

Etxe eraikitzeko terrena erosinahi dugu, Baztan edo Malerrekan. ☎ 393067.

Haritz amerikanoak eta **gaztain plantak** salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

Akordeoa salgai. ☎ 637306 (arratsetan).

Bi kainoiko **eskopeta** salgai. Arruntarina da. 15.000 pezeta. ☎ 387017.

Esnea hozteko tankea salgai, Happy marka, 320 litrokoa. ☎ 599211.

Battle markako **enpakadora** salgai, 2'10 zabal, arras ongi dagoena. ☎ 592016 (Javier).

Motoan ibiltzeko **larruzko txaketa** ia berria (negu batez ibilia) salgai. ☎ 635251 (eguerdi aldean).

Tresilloa salgai Elizondon, egoera onean eta merke. ☎ 631018.

Traktorea Agria markakoa salgai, merke. ☎ 630735.

LANA

Erizain titulatuak, adineko jendea zaintzen lan eginen luke. Esperientziarekin. ☎ 630578.

Neska batek haurrak zaintzen, etxeko lanetan edo sukaldari laguntzaile gisa lan eginen luke. Esperientziaduna. ☎ 637346.

Pintorea eskaintzen da era guzietako pintura lanak egiteko. Aurrekontuak konpromisurik gabe. ☎ 908.674429.

IBILGAILUAK

Renault 11 GTL kotxea, NA-S matrikuladuna salgai. ITV 2 urterako pasatua. ☎ 580649 (eguerdian eta gauzez).

Motoa salgai, 309 Cota markakoa. ☎ 630686 (arratsetan).

Opel Astra Van 1700 Diesela salgai. NA-AH matrikula eta 42.000 km. Prezio onean. ☎ 510089 (otorodutan).

Audi **VW** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

AZIENDAK

Astoa salgai, lanean ongi hezia. ☎ 397015 (eguerdi eta ilunabarretan deitzeko).

Zakurkumeak salgai, erbi, koneju eta basurde ehiza-koak. ☎ 585008.

Zakurkumeak salgai, espainiar bretoi arrazakoak, pedigree. ☎ 725574 (arra-

tsaldeko 7etatik goiti) eta ☎ 301102 (lanekoa).

Ehiziko bi zakurkume salgai. ☎ 451645.

Bi ahariko mutur gorriak salgai, bat adarrekin eta bertzea gabe. ☎ 397004 (Mikel, iluntzean).

Pekines arrazako **txakur-rrak** salgai. ☎ 631218.

Ardiak bere subentzioekin salgai. ☎ 450142.

AGURRAK

Berako Laura, Ainhoa eta Patriziari: ez ibili tetelkeriekin.

Itziar Sanchez eta **Estibaliz Agirre:** Zorionak zuen 12. urtebetetzeagatik.

Lesakako Mari Carmen Muñoaren partez, aupa Orereta.


Asier Senper, oso ona zaudede. Udako eskutitzako neska-karen partez.

Deitzeko daukazun afizioa utzi eta esan beharrak aurpegira esan, barrabilak baldin badituzu. Beatriz eta Leire.

BIZKANTXE, S.L.

- ✓ Pisuak, garajeak eta bajera salmenta. Lesaka erdi-erdian, plazaren ondoan.
- ✓ Pisuak 85 m²tik goiti, hiru logela, sala, bainua, aseoa eta sukaldea.
- ✓ Kalefakzioa.
- ✓ Terraza jardinarekin.
- ✓ Lehen mailako materialak.



PREZIOA: 17.000.000 pezetatik goiti



Informazioa: ☎ 945-248254 edo 945-252312 edo obran bertan


SUKALDETAN

punta-puntako diseinuak
zure beharretara egokituz
eta akaberarik hoberena
garantizatuz.



EGONGELETAN

funtzionaltasuna eta
estetika elkartzen duten
modulo-programa.



LOGELETAN

gazteen gustoko mobleak
aurkituko dituzu,
zure behar eta gustotara
egokitzen direnak.

MOBLES
METS
mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA


Zutaz kezkatzen gara
eta azken nobedadeak
zuretzat bilatzen ditugu.
Kalitaterik hoberenean
eta preziorik
egokienean.

Laguntza Eskaria

P.A.C.



LAISTER, 1996KO P.A.C.
LAGUNTZA ESKARIA EGIN AHAL
IZANEN DA.
NOBEDADE GISA, AURTEN
ZIENDEN LAGUNTZA ESKARIA
SKAERA ORRI BEREAN EGINEN
DA.
ERRIRO ERE AURRERA ZAITEZ.
ZATOZ KUTXARA.



Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin